TOKIKOM
txintxarri
1350. zenbakia 2016-10-31 Lasarte-Oria txintxarri.eus

Lasarte-Oria Bai!




# 873 parte hartzaile

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat!

ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri patea

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria •Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

KULTURA

# Kultur ekitaldiz gainezka dator azaroa

## Danok Kideren musika topaketak 4an hasiko dira; Akordeoi Jaialdia 12an izango da

***Zinea, antzerkia, hitzaldiak, musika emanaldiak... Udalak azarorako prestatu duen eskaintza kulturalak hainbat osagai edukiko ditu. Berrikuntza gisara, 'Beldur Gaua' antolatu du hilaren 19an; hiru pelikulaz osatutako saioa izango da. Bestalde, Danok Kideren XII. musika topaketak 4an hasiko dira, eta Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdia 12an ospatuko da. Zalantzarik gabe, kultur ekitaldiz gainezka dator azaroa.***



Xabier Goitia teknikaria, Jesus Zaballos alkatea eta Maite Iglesias zinegotzia, azaroko agendaren aurkezpen ekitaldian.

Herritarrek kultur ekitaldi-sorta oparoaz gozatuko dute azaroan zehar. Udalak egitarau zabala prestatu du datorren hilabeterako. Berrikuntzen artean, azpimarragarria da 'Beldurgaua' ospatuko dela azaroaren 19an, larunbatarekin, duela zenbait urteko ohitura berreskuratuz. Horrez gain, beste osagai asko ditu azaroko kultur agendak: zinea, antzerkia, hitzaldiak edota musika emanaldiak. "Uste dugu agenda oso indartsua prestatu dugula azarorako", zehaztu zuen Jesus Zaballos alkateak aurkezpen ekitaldian.

Maite Iglesias Kultur zinegotziak eta Xabier Goitia udal teknikariak eman zuten ekintza horien berri, txandaka. Zinea izan zuen hizpide Iglesiasek. Azaroaren 6an, igandearekin, bi emanaldi antolatu dituzte: haurrentzat, 'Mascotas' filma, 17:00etan. Helduentzat berriz, estreinatu berri den 'Inferno', Dan Brown idazlearen eleberrian oinarrituta, 19:30ean hasiko da proiekzio hori.

Jarraitu aurretik, zenbait zehaztapen: emanaldiak Manuel Lekuona kultur etxean izango dira aipatutako ordutegietan, eta prezioak, hauek: 3,80 euro haurrentzat eta 5,50 helduentzat. Ondoren, 13an, 'El hogar de Miss Peregrine' eskainiko da haur eta helduentzat. 20an berriz, 'Zikoinak' haurrentzat eta 'El hombre perfecto' helduentzat. Eta, bukatzeko, sona handia hartzen ari den 'Un monstruo viene a verme' filmaren lau pase aurreikusi dituzte azaroaren 26 eta 27rako (haurrentzako bi eta helduentzako beste bi). Genero horrekin jarraituz, 11n Zine Foruma egingo du Okendo Zinema Taldeak, 22:00etan, kultur etxean. 'Elle' filma proiektatuko dute, jatorrizko bertsioan, azpitituluekin. 5,50 euro balioko dute sarrerek.

Azaroko kultur agendako berrikuntza azpimarragarrienetako bat da hainbat urteren ostean beldurrezko gaua egingo dela berriro herrian, azaroaren 19an, larunbatarekin. Egun horretan hiru film proiektatuko dituzte: 'Nunca apagues la luz', 'Ouija el origen del mal' eta 'No respires'. 22:00etan hasiko da saioa, eta sarrerak 12 euroan erosi ahalko dira.

### Emanaldi musikal deigarriak

Musikaren alorrean ere edukiko dute zer ikusi herritarrek. Azaroaren 12an Lasarte-Oriako XIII. Akordeoi Jaialdia ospatuko da, Manuel Lekuona kultur etxean. 19:00etan hasiko da emanaldia. Helduek 3 euro ordaindu beharko dituzte; 16 urtez azpikoentzat berriz, doakoa izango da sarrera. Maila handiko artistak ariko dira bertan: munduko akordeoi-jole onenetakoa den Julien Gonzalez frantziarra, Susana Cencillo eta Javi Perezek osatutako akordeoi-tronpeta bikotea eta Clak'Tet&Cie taldea. Zero Sette herriko taldeak aurten ez du joko, "protagonismoa kanpotik datozen artistei emateko", esan zuen Goitiak.

Horrez gain, aipatu beharrekoa da datorren asteko ostiralean hasiko dela Danok Kidek antolatutako musika topaketak. 'Sotto Voce' taldea ariko da Brigitarren komentuan, 19:30etik aurrera.

### Hitzaldiak, erakusketa eta antzerki emanaldiak

Azaroko agendan hitzaldi-sorta ederra sartu du Udalak. Horietako batzuk Topaketen Astearen baitakoak izango dira. Azaroaren 9an migratzaile eta errefuxiatuei buruzko hitzaldi bat emango du Migrazio Idazkaritzako zuzendariak, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etatik aurrera. 11n berriz, hitzaldi-zinema saioa antolatu dute, Amparo Climenten 'Las lagrimas de Africa' pelikularen bueltan. 19:00etan izango da hori ere, hitzaldi aretoan. Bestalde, azaroaren 2tik 15era bitarteko erakusketa bat prestatu dute: 'Somos migrantes'. Antonio Mercero gunera joan ahalko dute herritarrek hori ikustera, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 19:00etara.

Hitzaldiekin jarraituz, Felix Garitano parrokoak 'Creo en dios...soy ateo' solasaldia eskainiko du hitzaldi aretoan, azaroaren 16an, 19:30ean. 24an Arsenio Lorenzo fundazioaren txanda izango da: 'Memoria Viva' hitzaldia eskainiko dute, 19:00etan, aurrekoaren toki berean.

Bestalde, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailarekin eta Emakumeen Zentroarekin elkarlanean antolatutako emakumeen kontrako indarkeriaren astearen baitan bi solasaldi daude aurreikusita: Irantzu Valera ariko da 22an 19:00etan, eta Iratxe Alvarez 29an, 18:00etan. Hitzaldi aretoan izango dira biak.

Eta alor horrekin bukatzeko, aipatu Baketik Fundazioak 28an eskainiko duena, pelikula proiekzio batekin batera, hitzaldi aretoan baita ere, 19:00etan: 'Mujeres y procesos de paz: Euskadi y Guatemala' du izenburu.

Bi antzerki-emanaldiz ere gozatu ahalko da azaroan. Horietako bat helduentzat izango da, gazteleraz, 18an, 5,50 euroren truke: 'El tipo de la tumba de al lado' du izena. "Askok eskatu digute ezaugarri horiek dituzten emanaldiak antolatzeko, eta behar horri erantzun nahi izan diogu", zehaztu zuen Goitiak. Bigarren emanaldia haurrei zuzendutakoa izango da: Txipli Txapla konpainiak 'Tomaxen Abenturak' izeneko lana oholtzaratuko du 19an, 17:00etan. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Bi emanaldiak kultur etxeko auditorioan egingo dituzte.

### Beldur Barik eta literatura

Kultur agenda oparo honekin bukatzeko, bi hitzordu gehiago nabarmendu behar dira. Batetik, 23an, Beldur Barik lehiaketako sari banaketa egingo dute, hitzaldi aretoan, 19:00etan. Bestetik, herriko literatur lehiaketetako sariak banatuko dituzte 26an, larunbatarekin, hitzaldi aretoan.



ESKOLA KIROLA

# Eskola Kirola garatzeko hitzarmena

## 43.373 euro jasoko dituzte guraso elkarteek

***Lasarte-Oriako Udalak eta Sasoeta-Zumaburu zein Landaberri ikastetxeetako guraso elkarteek akordioa sinatu dute Eskola Kirola egitasmoa garatzeko. Sasoetakoak 6.392 euro jasoko ditu; Landaberrik berriz, 37.981. Joan den ostegunean egin zuten sinaketa-ekitaldia, udaletxe berriko bilera-gela batean.***



Guraso elkarteek eta Udalak ostegunean sinatu zuten hitzarmena.

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako guraso elkarteek (Landaberriren kasuan, Lehen Hezkuntza eta DBHkoak; Sasoeta-Zumabururenean, Lehen Hezkuntzakoak) akordioak sinatu dituzte Lasarte-Oriako Udalarekin, herriko ehunka gaztetxori ariketa fisikoa egiteko aukera ematen dien Eskola Kirola egitasmoa gauzatzeko.

Denera, 44.373 euro (37.981 Landaberrik eta 6.392 Sasoetak) jasoko dituzte aipatu bi guraso elkarte horiek. Sasoeta-Zumabururen guraso elkartearen izenean Javier Alonsok sinatu zuen hitzarmena; Landaberrirenean, Miren Zalduak. Udalaren izenean Jesus Zaballos alkatea eseri zen mahaian. Lasarte-Usurbil BHIk ez du sinatu akordioa aurten, azken denboraldietan lehian ibilitako boleibol taldea atera ez dutelako, Carlos Altuna Udaleko kirol teknikariak joan den osteguneko sinaketa-ekitaldian jakinarazi zuenez.

Hitzarmen horietan jasotzen denez, ikastetxeek bermatu beharko dute Eskola Kiroleko saio horiek ematen dituzten begiraleak elebidunak izatea. "Horren bitartez, euskararen erabilera sustatu nahi dugu egitasmo honetan", zehaztu zuen Zaballosek.

Bestalde, Udalak konpromisoa hartzen du ikastetxeen kudeaketarako egitura lokal bat sortzeko.

# Zientzian eta joskintzan murgiltzen

Amaraun Klubeko HH5 eta LH2 maila arteko haurrak azaroa eta abenduan zehar zientzialari izango dira. 'Zientzialaria izan nahi dut! ' tailerrean ura kolore edo argiarekin esperimentuak egiteko aukera izango dute.

Bi ikastaro izango dira martxan bata asteazkenetan eta bestea ostegunetan. Ordutegiari dagokionez, tailerra 17:45ean hasi eta 19:15ean amaituko da. Saioak egingo diren kokalekua zehazteke dago.

### Joskintza ikastaroa

Bestalde, 9 eta 12 urte bitarteko Gazteklubeko lagunek oinarrizko joskintza ikastaroa dute.

Erribera Kaleko lokalean izango da astelehenetan 18:00etatik 19:30era. Norberak josteko kaxa eraman beharko du: guraizeak, metroa eta telak.



### Izen-ematea

Ttakuneko bulegoan, *aisia@ttakun.eus* helbide elektronikoan edo 943 371 448 telefonoan eman daiteke izena. Ikastaroetako plazak mugatuak dira.

Zientzia tailerrean, Ttakuneko bazkideek 14 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 17 euro; joskintza tailerrean, aldiz, bazkideek 15 euro eta bestelakoak, 18 euro.

Ordainketa bulegoan egin daiteke, txartelarekin edo diruz, baita transferentzia bidez ere. Azken aukera hau hartzen dutenek honako Kutxabank zenbakian egin behar dute diru sarrera: 2095 5048 18 1061552351.



IPUIN-KONTALARIAK

## Euskal kondairak eta mitologia

Kontu Kantoi taldeko kideek euskal kondaira eta mitologian oinarritutako saioa eskaini zuten lehengo asteartean ipuin-kontalarien txokoan.

Haur liburutegira hurbildu ziren gaztetxoek ekilorearen eta Tartaloren istorioak ezagutu ahal izan zituzten Bea Egizabalen hitz eta Cesar Marcosen marrazkien bitartez. Euskal mitologiako beste pertsonaiak ere agertu ziren ipuinetan, hala nola, Amalur edo Sugar.

Haurrek adi jarraitu zituzten bi kontakizunak. Abestiak kantatu, barre egin eta galderak egiteko aukera ere izan zuten amaitzean.

Ikasturte honetako hurrengo saioan ere, Kontu Kantoiko kideen kontakizunez gozatu ahalko dute 6 eta 8 urteko gaztetxoek. Hitzordua, azaroaren 10ean, ostegunean izango da. Txikienek, berriz, azaroaren 17an, Pello Añorgaren eskutik, ipuin eta liburuen mundu magikoan murgiltzeko aukera izango dute. Saioak 18:00etan hasten dira.

BIYAK BAT

## Gabonetako loteria salgai

Biyak Bat erretiratuen elkarteko zuzendaritzak jakinarazten du, Gabonetako loteria azaroaren 2an jarriko dela salgai.

Bulego ordutegian izango da hau eskuratzeko aukera 10:30etik 12:30ra. Interesa dutenei ahalik eta azkarren erosteko gomendioa egiten die zuzendaritzak.

DYA

## Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa

DYA Gipuzkoak, azaroaren 7an, Lasarte-Orian 'Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro' berria antolatu du.

Ikastaroa biztanleri osoari irekia da eta 3 asteko iraupena izango du, azaroaren 25era arte. Saioak Garaikoetxea Landaberri ikastetxean eskainiko dira, 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaroak egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. "Bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak… Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ukituaz", azaldu dute DYAko kideek. Izena emateko ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea.

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituzten pertsonek DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango dute.

Matrikula, ikastarorako txostena barne delarik 110 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, "ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren".

Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, interesatuek 943 464 622 telefonora deitu behar dute.

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat

Maite BETELU

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 48 86

Gestoria
Aholkularitza
Inmobiliaria zerbitzuak
Aseguruak
Etxebizitzen



HISTORIA

# Lasarte-Oriako historian murgiltzen

## Jose Luis Navarrok 'Retazos II' liburua aurkeztu zuen

***Duela 9 urte argitaratutako 'Retazos' liburuak badu jarraipena. Jose Luis Navarrok artxibo eta hainbat liburuetan Lasarte-Oriari buruz aurkitutako XX. mendera arteko dokumentuak bildu ditu 'Retazos II' liburuan.***



Jose Luis Navarro idazlea eta Jesus Zaballos alkatea 'Retazos II' liburuaren aurkezpenean.

Ostegunean, Jose Luis Navarro herritarrak idatzitako liburu berria aurkeztu zen, 'Retazos II. Aproximación a la vida de Lasarte hasta el siglo XX'. Lasarte-Oriako Udalak argitaratzen duen egilearen laugarren liburua dugu hau.

Liburuaren aurkezpenean, Jesus Zaballos alkatea, udal ordezkariak, Jose Luis Navarro idazlea, bere familia eta hainbat herritar bildu ziren.

Lehenik, alkateak eskerrak eman zizkion Navarrori Lasarte-Oriaren historia azaleratzen laguntzeagatik eta artxibo lan izugarria egiteagatik. Izan ere, "nondik gatozen jakitea garrantzitsua da".

"Nahiz eta Lasarte-Oria udalerri gaztea izan, 30 urte bete ditu aurten, gure historia zaharragoa da. Antxon Agirre Sorondoren hitz batzuk hartuaz, *Lasarte-Oriak 20 urte baina mende gehiago ditu*", aipatu zuen.

Honetaz gain, liburuan dauden hainbat pasadizo azaldu zituen alkateak, horien artean, 1683an San Pedro jaiak ospatzen zirela edo Lasarte-Oria Gipuzkoan aitzindari izan zela telefono-linea izaten, "Brunet enpresak bulegoetatik Oriako fabrikara jarritakoa".

### Datu ezezagunak

Jose Luis Navarrok hartu zuen hitza ostean. 'Retazos' egin eta gero XX. mendea baino lehenagoko Lasarte-Oriari buruzko zerbait egiteko gogoa zuela azpimarratu zuen.

Horretarako, besteak beste, Hernaniko eta Lasarte-Oriako artxiboetan, interneten, hemeroteketan, Manuel Lekuonaren edo Luis de Murugarrenen testuetan murgildu zen eta Ramon Lopezen laguntza izan zuen horretarako.

Navarrok idatzitako laugarren liburu honetan, mende ezberdinetako pasadizo ugari aurkezten ditu. "Herritarrek ezagutzen ez dituzten datuak eskaini nahi nituen edo nahiz eta istorioak ezagutu, hauekin lotutako kontu ezezagunak".

Idazleak berak azaldu modura, hamazazpi kapitulutan banatu du lana. Lasarte eta Okendo familiak, Lasarteko parrokia, olak eta errotak, industrializazioa, epidemiak, gudak, jaiak edo bestelako gertakizunei buruzko idatziak irakurri ahal dira honetan.

Azkenik, liburuaren eskertzetan, bere emaztea eta lasarteoriatarrak daudela jakitera eman zuen. "Nire emazteak Lasarte-Oriari dion maitasuna niri transmititu didalako eta lasarteoriatarrei nire bizitzako etapa garrantzitsua direlako". Amaitzean, herritarrek galderak egiteko tartea izan zuten.

# Langabetuak kontratatzeko laguntzak

Langabetuak kontratatzen dituzten bailarako enpresek itzuli beharrik gabeko 205.500 euroko laguntza eskatu dezakete.

Enplegua Sustatzeko toki ekintzetarako Lanbideren laguntza deialdiaren babesean, Buruntzaldea-Beterri bailarako Udalek enplegua sustatzeko asmoz, langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak eskaintzen dituzte.

Inguruko enpresei zuzenduriko laguntzak dira eta bailarako langabeak eta lan-eskatzaile moduan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatutakoak kontratatzea dute helburu.

2016ko aurrekontuan 205.500 euro aurreikusi dira diru-laguntza honetarako. Zenbateko hau Lanbidek finantzatzen du.

### Betebeharrak

Enpresek diru-laguntza honen onuradun izateko Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan-eskaintza zehatza aurkeztu beharko dute edota jarduera horretarako Lanbidek gure eskualdean duen entitate kolaboratzaile batean eta Lanbidek proposaturiko hautagaien artetik aukeratu behar dituzte kontratatuko dituzten pertsonak.

Kontratazio hauek 2016ko abuztuaren 22tik aurrera egindakoak behar dute izan.

Diruz lagundutako kontratuek 2017ko maiatzaren 31 baino lehen bukatu behar dute, 5 hilabete gorako kontratuak izan ezik. Azken kasu honetan, aipaturiko data baino lehen bete behar ditutzte kontratuaren lehendabiziko 5 hilabeteak.

Diruz lagunduko diren kontratu moten banaketa eta eskuratu ahal den diru-laguntzaren zenbatekoa, deialdia arautzen duten oinarrietan jasotzen da, 2016/06/16ko EHAAn argitaratua.

Berrikuntza gisa, aurtengoan, eskualdeko udalek gauzatutako prestakuntza-ibilbideetan aritutako langabetuak kontratatzeko aukera izango da, hau da, hazilan, hotelgintza, instalazio-elektroteknikoak eta dependentzia ikastaroak egin dituzten pertsonak.

### Eskaeren aurkezpena

Eskaerak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 31 artekoa da eta Andoaingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Saileko bulegoan egin beharko da, La Salle etorbidea 6. Urigain etxean.

Diru-laguntzak 2016ko ekitaldiko udal aurrekontuetan finkatutako kreditu erabilgarria amaitu arte emango dira eta eskaeraren sarrera data eta orduaren lehentasun-hurrenkera jarraituz eskainiko dira, beti ere ongi betea badago.

Argibide gehiago Udalaren webgunean, 943 376 179 zenbakian edo *d.avila@lasarte-oria.eus* helbidean.



Irten armairutik!




urriak 28

# Lehenengo Ahobizien lekuko aldaketa



## Aldaketa giro ederrean

Lehenengo lekuko aldaketa egin zen ostiralean Sasoeta-Zumaburu ikastetxean. Honetan lehen eta bigarren txandako Ahobiziak batu ziren.

Lehenik, bi txandak banandu eta dinamika bat egin zuten. Ostean, gimnasioan bildu eta Estitxu Garmendia eta Joxe Mari Agirretxe zortzikoteko kideen animo hitzak jaso zituzten. Agurra dantzatu eta Ane Labaka eta Zigor Iriondok bertsoak eskaini zituzten. Lekuko aldaketa ere egin zuten, batzuk besteei txapa emanaz.

Familia argazkia egin eta guztiak Ttittiki Ttarrakako lagunekin kalejiran hurbildu ziren Jalgira. Bertan bi txandeko kideek lasaiago haien esperientzietaz hitz egiteko tartea izan zuten.



**Iker Sarasola**
Lehenengo txandako Ahobizia

**Zer moduzko esperientzia izan da Ahobizi izatea?**
Esperientzia ona izan da. Hala ere, zaila izan da momentu batzuetan. Ohitua zaude pertsona batzuekin gazteleraz egitea, hauek ez dutelako euskara ongi ulertzen eta arraroa egin zait haiekin euskaraz egitea.

Esperientzia polita eta gomendagarria da benetan. Orain lehen gazteleraz egiten zuten pertsona batzuekin euskaraz egiten dut. Gainera, txaparik ez duen jendea eta lehen beti gazteleraz egiten zidana hurbildu zait eta euskaraz hitz egin dugu.

Jendeak ilusioa duela ikusten da. Kaletik txapak ikusten dira. Maratoiko asteburuan bizitakoa, egunerokotasunera eramatea zaila da. Baina ilusioa dagoela ikusten da.



**Belen Insausti**
Bigarren txandako Ahobizia

**Zer lortu nahi duzu esperientzia hau biziaz?**
Herri bezala, Lasarte-Orian euskararen hedapena egon dela argi geratu dadila. Esfortzuarekin aurrera pausoak egiten ari garela ikustea.

Pertsonalki, erronka bat da, ni euskaldun berria izanik. Beti saiatu naiz lehen hitza euskaraz egiten, baina zaila egiten zitzaidan elkarrizketan aurrera egin eta erdarara ez jotzea edo gaztelerazko esamoldeak erabiltzea. Aste honetan, bukaeraraino euskaraz hitz egitera behartuko dut nire burua.

2015ean hasi nintzen euskara ikasten. Gainditu gabeko ikasgaia zen. Behin ikasita argi nuen erabiltzeko zela.

Egun hauetan, Belarriprest modura, ezagunak edo txapadun herritarrak gerturatu zaizkit euskaraz egiteko. Zenbait kasutan erdaraz egin behar izan dugu, baina gehiena euskaraz egiten saiatu naiz.

**Informazioa:** Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

# 22 herritarren eskuzabaltasuna eskertua

***Transplanteak edo hainbat ebakuntza egiteko odola behar da. Gipuzkoako odol emaileei esker, ospitaleek duten behar hori ase eta milaka pertsonen bizia salbatzen da. Eskuzabaltasun hori eskertzeko odol emaileen ordezkaritza ezberdinek bilkura egiten dute urtero. Lasarte-Oriako taldea Oria Beheko ordezkaritzaren barruan dago kokatua. Ordezkaritza honetako kideak lehengo asteko igandean bildu ziren mahai baten inguruan.***




Saria jaso zuten herritarrak Joxe Usabiaga Oria Beheko eta Lasarte-Oriako ordezkaritzako lehendakariarekin.

Urnieta, Hernani, Usurbil, Orio, Aia, Ibarra, Berastegi, Ereñozu, Irura, Anoeta, Tolosa, Asteasu, Villabona, Andoain eta Lasarte-Oriako 170 bat odol emaile bildu ziren urriaren 23an, igandean, Urnietako Oianume jatetxean Oria Beheko odol emaileen ordezkaritzak antolatutako ekitaldian.

Honetan 25, 40, 50 eta 75 odol-ateratze bete dituzten odol emaileek urrezko edo zilarrezko oroigarriak eta emaile bikaina saria jaso zuten Joxe Usabiaga ordezkaritzako lehendakariaren eskutik. Harekin batera Amaia Horrillo ordezkaritzako idazkaria ere izan zen.

Sari banaketa girotzen, dantzariak eta bertsolariak izan ziren. Ekitaldia Berastegi, Ibarra eta Tolosako ordezkariek antolatu zuten.

### Lasarteoriatarrak saridun

Ekitaldi honetan Lasarte-Oriako 22 herritar izan ziren sarituak, haien eskuzabaltasuna eskertuz.

25 odol-ateratze egiteagatik zilarrezko oroigarria jaso zuten Andres del Olmok, Patxi Delgadok, Mari Sol Fernandezek, Maria del Carmen Gratisek, Raul Quintanillak, Carmen Riverok, Cristobal Sarmientok, Iban Urkizuk eta Imanol Zinkunegik.

Urrezko oroigarria, 40 edo 50 odol-ateratzerengatik, Pepi Aldazabalek, Milagros Larburuk, Margarita Sanchezek, Juan Mari Aizpuruak, Pablo Carreterok, Jon Batista Galarragak, Jesus Mari Gonzalezek, Bernaitz Odriozolak eta Jesus Sañudok eskuratu zuten.

75 odol-ateratze izateagatik ematen den emaile bikaina saria berriz, Enrique Peña Basterra, Iñaki Guijarro, Jose Manuel Mateos eta Roberto Reberentzat izan zen.

Lasarte-Oriako Odol emailetako taldeko kideek azaldu digutenez, "ezin izan ziren guztiak sari banaketara hurbildu".

Banaketaren ostean, giro ederrean, guztiek ederki bazkaldu zuten.

### Odol-ateratzea

Bestalde, gaur hilabeteko azken astelehena izanik, ohikoa den moduan arratsaldeko 17:30etatik 20:30era Odol emaileen elkarteko kideak Osasun Zentroan izango dira odol-ateratzeak egiten.

Elkarteak herritarrak animatzen ditu Osasun zentrora hurbildu eta odola ematera, "hau ordezkaezina da eta beharra dago".


Beroketak egiten ikusi ahal ziren korrikalariak lehen ordutik.



Irteeran lehenengo postuetan ikusi ahal ziren lasterketako faboritoak.


Lauko taldetxo bat egin zen lehen kilometroetan.


Emakumeen mailako lehen sailkatuak ere oso gertu ibili ziren lasterketa osoan.

# Eneko Agirrezabal eta Hoki Guerrero garaile

## XXI. Lasarte-Oria Bai! krosean 873 lagun izan ziren korrika

***Lasarte-Oria Bai! krosak herriko kaleak hartu zituen aurten ere goizeko lehen orduetatik. Aurten bi lasterketa ikusi ahal izan dira bakarrik, patinatzaileak eta korrikalariak. Lasterketa nagusian, faboritoek ez zuten huts egin. Eneko Agirrezabal segurarra eta Hoki Guerrero hernaniarra izan ziren garaileak.***

TXINTXARRI

Goizeko 10:30ean puntuan hasi zen XXI. Lasarte-Oria Bai! lasterketa.

Baina giroa lehen ordutik nabari zen.

Dortsala hartzeko zuten korrikalariek Michelingo pilotalekura hurbildu eta beroketak egin zituzten kirol gunean.

Lasarte-Oriako erdiguneko kaleetan ere patinatzaile eta lasterkari ugari ibili zen 10 kilometroko azken prestaketak egiten.

Guztiak irteera puntura hurbildu ziren eta lehen lerroan ikusi ahal izan genituen lasterketa irabazteko faboritoak.

Irteera ofiziala eman baino lehen, agurra dantzatu zieten parte-hartzaile guztiei.

### Faboritoak beti aurretik

Lehen metroetatik faboritoek bere nagusitasuna erakutsi zuten.

Eneko Agirrezabal, Ossama Ifraj, Ander Sagarzazu eta Unai Arroyok, besteak beste, osatutako taldetxoa egin zen lehen kilometroetan.

Ibilbidean aurrera egin ahal egin ahala taldea batera mantendu zen.

Baina Hipodromo aldean, Ossama Ifrajek eta Eneko Agirrezabalek tartea ireki zuten.

Buruz buru ibili ziren biak lasterketako lehen postua eskuratu nahian.

Baina azken kilometroan Eneko Agirrezabalek Ossama Ifraj atzean utzi eta 21. edizio honetako garaipena erdietsi zuen 32 minutu baino gehiagoko denbora eginez.

Ander Sagarzazu hirugarren sailkatua segundo batzuetara iritsi zen.

Emakumeen mailan, berriz, Hoki Guerrero hernaniarra izan zen garaile.

Honetan ere lasterketako lehen metroetatik hartu zuen aurrea Rosa Uribe eta Rebeca Villanueva lagun zituelarik.

Horrela mantendu ziren Hipodromo aldera arte. Bertan Hoki Guerrerok tartetxo bat ireki zuen

Era honetara, Guerrerok Agirrezabalek baino 10 minutu gehiago behar izan zituen helmugara iristeko. Segundo batzuetara iritsi ziren Rosa Uribe bigarren sailkatua eta hirugarren postuan, Rebeca Villanueva.

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

I. Urruzola aroztegia

- Altzairuak neurrira
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Era guztietako arotz-lanak
- Etxe barruko konponketak

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat!

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:
www.iurruzola-aroztegia.com

urruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238
Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



Hipodromo aldean, Eneko Agirrezabal eta Ossama Ifraj bikotea ikusi genuen.



Lasarte-Oria Bai! kroseko maila ezberdinetako sarituen talde argazkia egin zen amaieran.

Herritarrei dagokionez, gizonen mailan, Raul Gomez Margallo izan zen eta emakumeetan, aldiz, laugarren sailkatu zen Anabel Eleno izan genuen.

**Giro ederra**

Korrikalari guztiak pixkanaka iritsi ziren helmugara, batzuk nekea aurpegian nabari zitzaiela, besteak bakarka, bikoteka edo familia kideekin pozik helmugara iristeagatik eta batzuk azken indarrekin esprina eginaz.

Aurten omenduak izan ziren Jalguneko lagunak ere helmugaratzen ikusi ahal izan genituen.

Giro ederra izan zen ibilbide osoan zehar eta herritarren animoak jaso zituzten korrikalariek.

Erraustegiaren aurkako aldarria egin zuten hainbat herritarrek eta beti bezala, eskobako kideek eman zioten amaiera lasterketari.

**Krosa barrutik**

Hori guztiaz gain, aurten berrikuntza modura, Lasarte-Oria Bai! krosa barrutik ikusteko aukera duzu *txintxarri.eus* orrialdean sartuz gero.

Honekin batera lasterketako argazkiak eta bideo atalean, irabazleen hitzak entzuteko aukera ere baduzue.





Eneko Agirrezabal eta Hoki Guerrero bakarka iritsi ziren helmugara. Arerioak segundo batzuen tartean iritsi ziren.





1 dortsalarekin Jalguneko kideek ere lasterketako hainbat metro egin zituzten. Banaka, bikoteka edo familian sartu ziren helmugara korrikalariak.



| | Ofiziala | Erreala | Km.ko |
|---|---|---|---|
| Raul Gómez Margallo | 00:34:25 | 00:34:25 | 03:17 |
| Jose Luis Delgado Arenales | 00:36:04 | 00:36:03 | 03:26 |
| David Cordero Martin | 00:36:20 | 00:36:20 | 03:28 |
| Antonio Mazo Alvarez | 00:36:28 | 00:36:28 | 03:28 |
| Gorka Gil Martin | 00:36:39 | 00:36:38 | 03:29 |
| Raul Tejado Muñoz | 00:37:53 | 00:37:52 | 03:36 |
| Ivan Granado Macazaga | 00:38:00 | 00:37:59 | 03:37 |
| Jon Altuna Egitegi | 00:38:42 | 00:38:40 | 03:41 |
| Ritxar Marcos Martin | 00:38:45 | 00:38:44 | 03:41 |
| Xabi Carcedo Gonzalez | 00:39:12 | 00:39:10 | 03:44 |
| Luis Enrique Gallego Olmo | 00:39:18 | 00:39:16 | 03:44 |
| Unai Lizaso Huegun | 00:39:25 | 00:39:19 | 03:45 |
| Iraitz Arruabarrena | 00:39:30 | 00:39:28 | 03:46 |
| David Garcia Romero | 00:39:56 | 00:39:53 | 03:48 |
| Mikel Garcia Muñoz | 00:40:14 | 00:40:11 | 03:50 |
| Joseba Garcia Guereñu | 00:40:16 | 00:40:14 | 03:50 |
| Oscar Gandía Pascual | 00:40:40 | 00:40:34 | 03:52 |
| Imanol Arteaga Aizbitarte | 00:40:42 | 00:40:37 | 03:52 |
| Beñat Los Arcos Ayerdi | 00:40:47 | 00:40:41 | 03:52 |
| Toño Perez Rodriguez | 00:41:05 | 00:40:56 | 03:54 |
| Joxan Beldarrain | 00:41:36 | 00:41:33 | 03:57 |
| Juan Mari Marcos Molina | 00:41:39 | 00:41:38 | 03:58 |
| Julen Ormazabal Ortega | 00:41:52 | 00:41:31 | 03:57 |
| Javier Pastor Torrens | 00:41:56 | 00:41:52 | 03:59 |
| Joanes Lizarraga Olano | 00:42:01 | 00:41:56 | 04:00 |
| Jon Lasarte Kortajarena | 00:42:09 | 00:41:57 | 04:00 |
| Mikel Izagirre Aramendi | 00:42:10 | 00:42:09 | 04:01 |
| Jon González Martín | 00:42:17 | 00:42:02 | 04:00 |
| Sergio Mendez Manuel | 00:42:18 | 00:42:12 | 04:01 |
| Jon Pello Artetxe | 00:42:26 | 00:42:19 | 04:02 |
| Rebeca Villanueva Rojo | 00:42:28 | 00:42:27 | 04:03 |
| Anabel Eleno Agustin | 00:42:29 | 00:42:23 | 04:02 |
| Jose Luis Suarez Arias | 00:42:43 | 00:42:38 | 04:04 |
| Asier Gorostegi Aliri | 00:42:47 | 00:42:41 | 04:04 |
| Haitz Mitxelena Martikorena | 00:42:49 | 00:42:31 | 04:03 |
| Iker Lanchas Rebe | 00:42:50 | 00:42:31 | 04:03 |
| Mikel Olarra Gratis | 00:42:58 | 00:42:47 | 04:04 |
| Asier Diaz Iglesias | 00:42:58 | 00:42:38 | 04:04 |
| Asier Olmos Amondarain | 00:42:58 | 00:42:47 | 04:04 |
| Leonardo Juarez Araujo | 00:43:06 | 00:42:55 | 04:05 |
| Unai Bravo Sanz | 00:43:07 | 00:42:58 | 04:06 |
| Markos Bujanda | 00:43:16 | 00:43:09 | 04:07 |
| Xabier Puertas Berasaluce | 00:43:21 | 00:43:17 | 04:07 |
| Juan Luis De La Mata Rodríguez | 00:43:36 | 00:43:28 | 04:08 |
| Asier Sanchez Iceta | 00:43:46 | 00:43:25 | 04:08 |
| Jose Ignacio Diez Anton | 00:43:50 | 00:43:37 | 04:09 |
| Álvaro Sañudo Acosta | 00:43:55 | 00:43:46 | 04:10 |
| Borja Intxausti Ruiz | 00:43:58 | 00:43:44 | 04:10 |
| Mikel Villarroya Macazaga | 00:44:10 | 00:43:57 | 04:11 |
| Daniel Eguren Velazquez | 00:44:15 | 00:43:57 | 04:11 |
| David Gonzalez Corchuelo | 00:44:20 | 00:44:17 | 04:13 |
| David Mecerreyes Molero | 00:44:32 | 00:44:19 | 04:13 |
| Jose Antonio Tudero Muñoz | 00:44:41 | 00:44:41 | 04:15 |
| Ruben Mendez Ramos | 00:44:48 | 00:44:21 | 04:13 |
| Marcos Mayán Das Neves | 00:44:50 | 00:44:46 | 04:16 |
| Borja Mellado Juan | 00:44:51 | 00:44:36 | 04:15 |
| Mikel Olaiz Garmendia | 00:44:53 | 00:44:37 | 04:15 |
| Pablo Muñoz | 00:44:57 | 00:44:39 | 04:15 |
| Guillermo Carcedo Martín | 00:45:00 | 00:44:33 | 04:15 |
| Igor Sevillano Rodríguez | 00:45:02 | 00:44:49 | 04:16 |
| Iker Navarro Etxeberria | 00:45:14 | 00:44:53 | 04:16 |
| Diego Gonzalez Jimenez | 00:45:22 | 00:44:58 | 04:17 |
| Beñat Negredo Muñoa | 00:45:22 | 00:44:59 | 04:17 |
| Unai Anguiano Guijarro | 00:45:25 | 00:45:06 | 04:18 |
| Iosu Galdos | 00:45:30 | 00:45:18 | 04:19 |
| Josu Olmos Amondarain | 00:45:41 | 00:45:17 | 04:19 |

| | Ofiziala | Erreala | Km.ko |
|---|---|---|---|
| Jokin Goenaga Miner | 00:45:44 | 00:45:28 | 04:20 |
| Salvador Tudela Seguer | 00:45:50 | 00:45:47 | 04:22 |
| Iurgi Muñoz Pielago | 00:46:02 | 00:45:45 | 04:21 |
| Cesar Zarraqueños | 00:46:03 | 00:45:49 | 04:22 |
| Jose Angel Busto Iglesias | 00:46:03 | 00:45:46 | 04:22 |
| Jesus Maria Patino Candelario | 00:46:03 | 00:45:47 | 04:22 |
| Alvaro Reyes Hernando | 00:46:10 | 00:46:07 | 04:24 |
| Ivan Garcia Caballero | 00:46:12 | 00:46:11 | 04:24 |
| Gema Tejero Cano | 00:46:21 | 00:46:19 | 04:25 |
| Julen Bermejo Felipe | 00:46:21 | 00:46:00 | 04:23 |
| Joseba Lizeaga Iturrioz | 00:46:26 | 00:46:12 | 04:24 |
| Gaizka Ormazabal Ortega | 00:46:29 | 00:46:17 | 04:24 |
| Oskar Martínez Carretero | 00:46:31 | 00:46:12 | 04:24 |
| Ekaitz Roig Aldaya | 00:46:33 | 00:46:19 | 04:25 |
| Gonzalo Gurrutxaga Mogelos | 00:46:34 | 00:46:28 | 04:26 |
| Joseba Iparraguirre Usarralde | 00:46:35 | 00:46:17 | 04:24 |
| Jaime Blanco Sanchez | 00:46:36 | 00:46:20 | 04:25 |
| Xabier Carbayeda | 00:46:40 | 00:46:27 | 04:25 |
| Naiara Hernandez Aranguren | 00:46:41 | 00:46:38 | 04:26 |
| Ramon Altuna Vegas | 00:46:42 | 00:46:26 | 04:25 |
| Javier Blazquez Blazquez | 00:46:43 | 00:46:38 | 04:26 |
| Igor Sevilla Gracia | 00:46:52 | 00:46:34 | 04:26 |
| Tomax Arruti Aldalur | 00:47:03 | 00:46:50 | 04:28 |
| Asier Urruzola Ugalde | 00:47:05 | 00:46:45 | 04:27 |
| Aitor Hernando Cobo | 00:47:06 | 00:46:47 | 04:27 |
| Jon Chacartegui Villar | 00:47:06 | 00:46:59 | 04:28 |
| Luis Miguel Garcia Calleja | 00:47:07 | 00:47:03 | 04:29 |
| Daniel Lopez Amil | 00:47:08 | 00:46:47 | 04:27 |
| Iñigo Gonzalez Sarobe | 00:47:08 | 00:46:38 | 04:26 |
| Iñaki Mangas Ruiz | 00:47:10 | 00:46:53 | 04:28 |
| Iñigo Ibarburu Zuriarrain | 00:47:15 | 00:46:57 | 04:28 |
| Victor Morales | 00:47:19 | 00:47:05 | 04:29 |
| Hilario Sobejano Bienzobas | 00:47:30 | 00:47:02 | 04:29 |
| Ibon Gorraiz Laskibar | 00:47:42 | 00:47:23 | 04:31 |
| David Miguel Ortega | 00:47:44 | 00:47:18 | 04:30 |
| Iurgi Los Arcos Ayerdi | 00:47:44 | 00:47:32 | 04:32 |
| Joaquin Montero Barrios | 00:47:49 | 00:47:26 | 04:31 |
| Aitor Fontecha | 00:47:50 | 00:47:37 | 04:32 |
| Josu Vicente Martin | 00:47:54 | 00:47:38 | 04:32 |
| Susana Mateo Chinchilla | 00:48:15 | 00:48:08 | 04:35 |
| Javier De Sosa | 00:48:16 | 00:48:16 | 04:36 |
| Zigor Lekaroz Fernandez | 00:48:17 | 00:48:06 | 04:35 |
| Maximiliano Perez Zarate | 00:48:18 | 00:48:11 | 04:35 |
| Manex Loinaz Urruzola | 00:48:40 | 00:48:20 | 04:36 |
| Jon Martin Prieto | 00:48:41 | 00:48:20 | 04:36 |
| Eduardo Rivas Clemente | 00:48:43 | 00:48:17 | 04:36 |
| Jorge Iglesias Centeno | 00:48:43 | 00:48:24 | 04:37 |
| Miguel Angel Martin Azcona | 00:48:45 | 00:48:18 | 04:36 |
| Oscar Lopez Ferreiro | 00:48:51 | 00:48:23 | 04:36 |
| Martin Vicioso Cano | 00:48:57 | 00:48:48 | 04:39 |
| Aitor Ezcurdia Iturrioz | 00:49:04 | 00:48:48 | 04:39 |
| Rafael Ruiz Atxiaga | 00:49:11 | 00:48:53 | 04:39 |
| Enaitz Ibarburu Zuriarrain | 00:49:16 | 00:48:58 | 04:40 |
| Lander Aldazabal Sukuntza | 00:49:23 | 00:48:59 | 04:40 |
| Adei Zarra Aldaña | 00:49:34 | 00:49:14 | 04:41 |
| Antonio Mancera Suarez | 00:49:39 | 00:49:02 | 04:40 |
| Aritz Solano Garcia | 00:49:40 | 00:49:18 | 04:42 |
| Unai Iribar Zapirain | 00:49:45 | 00:49:26 | 04:42 |
| Aitor Aristondo Oliva | 00:49:49 | 00:49:25 | 04:42 |
| Aitor Guijarro Mateos | 00:49:50 | 00:49:24 | 04:42 |
| Amaia Sotes Elustondo | 00:49:53 | 00:49:40 | 04:44 |
| Imanol Avila Sanchez | 00:49:55 | 00:49:29 | 04:43 |
| Jose Angel Esteban Matellanes | 00:49:57 | 00:49:35 | 04:43 |
| Raul Carret Gallardo | 00:49:57 | 00:49:54 | 04:45 |
| Oskar Gonzalez Ramos | 00:50:02 | 00:49:38 | 04:44 |
| Andoni Burgos Igoa | 00:50:03 | 00:49:27 | 04:43 |



# Herritarren

| | | | |
|---|---|---|---|
| Javier Martin Prieto | 00:50:09 | 00:49:56 | 04:45 |
| Jesus López Estevez | 00:50:09 | 00:49:57 | 04:45 |
| Beatriz Baeza Carabias | 00:50:11 | 00:50:10 | 04:47 |
| Julen Sasiain Salaberria | 00:50:17 | 00:49:45 | 04:44 |
| Ruben Oyaga Goya | 00:50:24 | 00:49:59 | 04:46 |
| Patxi Murillo Muñoz | 00:50:25 | 00:50:09 | 04:47 |
| Andoni Gomez Irazu | 00:50:27 | 00:50:08 | 04:46 |
| Jose Maria Aizpurua Sanchez | 00:50:27 | 00:50:09 | 04:47 |
| Jose Antonio Lasa Iraola | 00:50:27 | 00:49:57 | 04:45 |
| Manuel Carretero Rosado | 00:50:27 | 00:50:15 | 04:47 |
| Maite Salazar Badiola | 00:50:31 | 00:50:14 | 04:47 |
| Jose Feliciano Moreno Lafuente | 00:50:50 | 00:50:33 | 04:49 |
| Miguel Granado | 00:50:55 | 00:50:33 | 04:49 |
| Jose Luis Arzallus Silva | 00:50:55 | 00:50:40 | 04:50 |
| Sergio Yubero Zarraluqui | 00:50:55 | 00:50:40 | 04:50 |
| Eñaut Azkarate Alkorta | 00:50:56 | 00:50:22 | 04:48 |
| Javier Peña Castrillo | 00:50:56 | 00:50:38 | 04:49 |
| Aitor Alonso Pera | 00:50:57 | 00:50:27 | 04:48 |
| Haritz Curiel Yarza | 00:50:57 | 00:50:25 | 04:48 |
| Gorka Lertxundi Abad | 00:50:58 | 00:50:44 | 04:50 |
| Aitor Urdangarin Letamendia | 00:51:02 | 00:50:37 | 04:49 |
| Fede Otaegi Fino | 00:51:03 | 00:50:46 | 04:50 |
| Ainhoa Mangas Rezabal | 00:51:10 | 00:50:33 | 04:49 |
| Leonardo Caballero Mateos | 00:51:11 | 00:50:59 | 04:51 |
| Izaskun Salazar Badiola | 00:51:12 | 00:50:55 | 04:51 |
| Iñaki Olaiz Garmendia | 00:51:13 | 00:50:38 | 04:49 |
| Antonio Urruzola Ortigosa | 00:51:18 | 00:51:06 | 04:52 |
| Gorka Urruzola Martinez | 00:51:19 | 00:51:06 | 04:52 |
| Pablo Izquierdo Vicente | 00:51:22 | 00:51:05 | 04:52 |
| Idoia Telleria Maritxalar | 00:51:22 | 00:50:51 | 04:51 |
| Carlos Muñoz Arrate | 00:51:23 | 00:50:53 | 04:51 |
| Ruben Arnaiz Garcia | 00:51:25 | 00:51:20 | 04:53 |
| Juanjo Martin Gonzalez | 00:51:28 | 00:51:07 | 04:52 |
| Eneko Ruiz Larrañaga | 00:51:29 | 00:50:50 | 04:50 |
| Iñigo Otaegi Beldarrain | 00:51:40 | 00:51:20 | 04:53 |
| Ainara Olasagasti Etxebeste | 00:51:41 | 00:51:19 | 04:53 |
| Patxi Xabier Olasagasti Etxebeste | 00:51:41 | 00:51:19 | 04:53 |
| Alex Altuna Egitegi | 00:51:43 | 00:51:19 | 04:53 |
| Oroitz Altuna Ibarguren | 00:51:45 | 00:51:21 | 04:53 |
| Jose Alberdi Lorenzo | 00:51:45 | 00:51:34 | 04:55 |
| Víctor Domínguez Cabrero | 00:51:51 | 00:51:14 | 04:53 |
| Joseba Muga Seoane | 00:51:51 | 00:51:14 | 04:53 |
| Miguel Angel García González | 00:51:52 | 00:51:18 | 04:53 |
| Carlos Miguelez Carballo | 00:51:58 | 00:51:23 | 04:54 |
| Estitxu Alkorta Barragan | 00:52:00 | 00:51:25 | 04:54 |
| Antonio Galan Pavon | 00:52:01 | 00:51:52 | 04:56 |
| Patxi Urriza Escudero | 00:52:01 | 00:51:38 | 04:55 |
| Iñigo Gomez Bayot | 00:52:02 | 00:51:39 | 04:55 |
| Roberto Bermejo Palacios | 00:52:03 | 00:51:39 | 04:55 |
| Miguel Angel Calle Prieto | 00:52:13 | 00:51:45 | 04:56 |
| Abel Castillo Garcia | 00:52:13 | 00:51:55 | 04:57 |
| Sergio Martinez Maqueda | 00:52:14 | 00:52:05 | 04:58 |

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat!
kima
masaje-lekua
Goyo Martin
Xabier Carbayeda
Errepideko, BTT eta triatloiko txirrindulariaren biomekanika
Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA

Fernández
ehunak
Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!
Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat!




Kale Nagusia 2
Tel. 943 36 16 07
LASARTE-ORIA




# sailkapena

| | Ofiziala | Erreala | Km.ko |
|---|---|---|---|
| Cristián Miranda Legorburu | 00:52:24 | 00:51:55 | 04:57 |
| Mikel Ormazabal Garmendia | 00:52:25 | 00:51:53 | 04:56 |
| Eduardo Ormazabal Garmendia | 00:52:25 | 00:51:54 | 04:57 |
| Nerea Arteaga Martiarena | 00:52:38 | 00:52:20 | 04:59 |
| Mikel Lasa Gonzalez | 00:52:38 | 00:52:23 | 04:59 |
| Alazne Badiola Arrasate | 00:52:40 | 00:52:16 | 04:59 |
| Eneko Ortiz | 00:52:43 | 00:52:23 | 04:59 |
| Yoana Martin Blazquez | 00:52:49 | 00:52:34 | 05:00 |
| David Martín Blázquez | 00:52:50 | 00:52:35 | 05:00 |
| Angel Prieto Toribio | 00:52:50 | 00:52:21 | 04:59 |
| Samuel Ferreira | 00:52:56 | 00:52:53 | 05:02 |
| Jonathan Seisdedos Gil | 00:52:59 | 00:52:42 | 05:01 |
| Roberto Ortega Fuentes | 00:53:01 | 00:52:23 | 04:59 |
| Urtzi Manic Garciandia | 00:53:04 | 00:52:34 | 05:00 |
| Cesar Diez Sanchez | 00:53:04 | 00:52:34 | 05:00 |
| Josi Sanchez Arruabarrena | 00:53:05 | 00:52:27 | 05:00 |
| Sergio Lucas Fernandez | 00:53:06 | 00:52:50 | 05:02 |
| Ismael Toribio Barquilla | 00:53:08 | 00:52:51 | 05:02 |
| Sergio Felipe Torres | 00:53:11 | 00:52:35 | 05:00 |
| Martín Leizaola Olarreaga | 00:53:16 | 00:53:07 | 05:04 |
| Imanol Zinkunegi Zabala | 00:53:16 | 00:52:53 | 05:02 |
| Kristina Bernal Etxeberria | 00:53:18 | 00:53:01 | 05:03 |
| Asier Mercader Soroa | 00:53:23 | 00:53:01 | 05:03 |
| Oscar Garcia Clemente | 00:53:27 | 00:52:59 | 05:03 |
| Larraitz Illunbe Olano | 00:53:34 | 00:53:08 | 05:04 |
| Borja Marcos Tamayo | 00:53:35 | 00:53:10 | 05:04 |
| Xabier Balsategi Balda | 00:53:36 | 00:53:06 | 05:03 |
| Francisco Javier Jimenez Duran | 00:53:37 | 00:53:08 | 05:04 |
| Mikel Zarra Intxaurburu | 00:53:41 | 00:53:24 | 05:05 |
| Iñaki Garcia Muñoz | 00:53:41 | 00:53:23 | 05:05 |
| Alvaro Mendibe Palomo | 00:53:44 | 00:53:11 | 05:04 |
| Maria Ongay Varela | 00:53:45 | 00:53:23 | 05:05 |
| Jon Martin Tejeria | 00:53:49 | 00:53:38 | 05:06 |
| Iñaki Racamonde Amil | 00:53:49 | 00:53:14 | 05:04 |
| Andoni Iturbe Martin | 00:53:50 | 00:53:46 | 05:07 |
| Txetxu Mertxan Villaron | 00:53:51 | 00:53:49 | 05:08 |
| Iñigo Aranjuelo Amiano | 00:53:56 | 00:53:56 | 05:08 |
| Rodol Zorzano Imaña | 00:53:57 | 00:53:22 | 05:05 |
| Oskar Solano Bilbao | 00:53:57 | 00:53:22 | 05:05 |
| Ignacio Molina Campo | 00:53:57 | 00:53:23 | 05:05 |
| Vanessa Montero Calderon | 00:53:58 | 00:53:52 | 05:08 |
| Enrique Guijarro Martinez | 00:53:59 | 00:53:36 | 05:06 |
| Gorka Muguruza Bollosillo | 00:54:02 | 00:53:30 | 05:06 |
| Alex Ramos Portero | 00:54:02 | 00:53:39 | 05:07 |
| Beñat Oroz Ormazabal | 00:54:03 | 00:53:46 | 05:07 |
| Imanol Carballés Plasencia | 00:54:13 | 00:53:59 | 05:08 |
| Fernando Navarro Castro | 00:54:14 | 00:53:48 | 05:07 |
| Julen Urruzola | 00:54:17 | 00:53:52 | 05:08 |
| Alex Zarra Aldana | 00:54:17 | 00:53:54 | 05:08 |
| Vivian Carolina Chávez González | 00:54:18 | 00:54:04 | 05:09 |
| Francisco Delgado Ávila | 00:54:19 | 00:54:09 | 05:09 |
| Elena Arriaran Rodriguez | 00:54:22 | 00:54:21 | 05:11 |

| | Ofiziala | Erreala | Km.ko |
|---|---|---|---|
| Luis Del Olmo De Pablo | 00:54:24 | 00:54:13 | 05:10 |
| Txemi Zulaika Gabirondo | 00:54:25 | 00:54:14 | 05:10 |
| Maider Lizarraga Erro | 00:54:25 | 00:54:25 | 05:11 |
| Jorge Guisado Gonzalez | 00:54:30 | 00:54:07 | 05:09 |
| Maxi Murillo Paredes | 00:54:34 | 00:54:00 | 05:09 |
| Patxi Arrieta Valverde | 00:54:35 | 00:53:59 | 05:08 |
| Miguel Angel Aguado Diez | 00:54:41 | 00:54:05 | 05:09 |
| Aitor Landaberea Rodriguez | 00:54:41 | 00:54:07 | 05:10 |
| Roberto Rebe Busto | 00:54:45 | 00:54:17 | 05:10 |
| Rosa Galan Villa | 00:54:49 | 00:54:26 | 05:11 |
| Belen De Pablo Perez | 00:54:51 | 00:54:38 | 05:12 |
| Juan Mari Artola Sukia | 00:54:56 | 00:54:34 | 05:12 |
| Javier Gainza Barbe | 00:55:08 | 00:54:30 | 05:11 |
| Javi Yubero Zarraluqui | 00:55:10 | 00:54:42 | 05:13 |
| Josune Liceaga | 00:55:16 | 00:54:57 | 05:14 |
| Maite Toquero Alvarez | 00:55:18 | 00:54:58 | 05:14 |
| Eric Utiel Martin | 00:55:33 | 00:55:06 | 05:15 |
| Jose Manuel Dorozo Airas | 00:55:40 | 00:55:01 | 05:14 |
| Gorka Aristondo Novoa | 00:55:41 | 00:55:22 | 05:16 |
| Oscar Varga Mellado | 00:55:42 | 00:55:08 | 05:15 |
| Carlos Aizpurua | 00:55:55 | 00:55:24 | 05:17 |
| Pilus Aranjuelo Amiano | 00:55:58 | 00:55:23 | 05:16 |
| David Muñoz Marañón | 00:56:02 | 00:55:30 | 05:17 |
| Ana Bienzobas Garcia | 00:56:02 | 00:55:26 | 05:17 |
| Iñigo Manuel Iglesias Casado | 00:56:11 | 00:55:59 | 05:20 |
| Maria Peñafiel Balmaseda | 00:56:17 | 00:56:12 | 05:21 |
| Ibai Zamora San Roman | 00:56:24 | 00:55:59 | 05:20 |
| Francisco Javier Zamora Garcia | 00:56:28 | 00:56:03 | 05:20 |
| Egoitz Salsamendi Pagola | 00:56:31 | 00:55:58 | 05:20 |
| Eneko Alkorta Larburu | 00:56:31 | 00:55:59 | 05:20 |
| Iker Lopez Fernandez | 00:56:36 | 00:56:13 | 05:21 |
| Juan Jose Molano Bermejo | 00:56:39 | 00:56:25 | 05:22 |
| David Pascual | 00:56:42 | 00:56:11 | 05:21 |
| Veronica Sanchez Benitez | 00:56:45 | 00:56:40 | 05:24 |
| Noelia Rubio Jaenes | 00:56:58 | 00:56:31 | 05:23 |
| Unai Yeregi Lagala | 00:56:58 | 00:56:23 | 05:22 |
| Naiara Mendiluce Erkizia | 00:56:58 | 00:56:23 | 05:22 |
| Cesar Lopez Aguado | 00:56:58 | 00:56:48 | 05:25 |
| Aitor Otamendi Lizarazu | 00:56:58 | 00:56:25 | 05:22 |
| Guillermo Trombotti Kortejarena | 00:57:04 | 00:56:43 | 05:24 |
| Maria Fernanda Juarez Araujo | 00:57:04 | 00:56:44 | 05:24 |
| Ignacio Maestre Azurmendi | 00:57:05 | 00:56:59 | 05:26 |
| Ane Zugasti Simón | 00:57:06 | 00:56:57 | 05:25 |
| Alfredo Sanz Ortega | 00:57:19 | 00:56:46 | 05:24 |
| Eneko Etxenagusia Izagirre | 00:57:22 | 00:56:46 | 05:24 |
| Javier Lopez Castaño | 00:57:25 | 00:57:09 | 05:27 |
| Joseba Nuñez Amonarraiz | 00:57:27 | 00:57:00 | 05:26 |
| Laura Moreno Estevez | 00:57:27 | 00:56:59 | 05:26 |
| Laura Igea Fuentes | 00:57:28 | 00:56:57 | 05:25 |
| Alex Castander Urrutia | 00:57:32 | 00:57:04 | 05:26 |
| Javier Molano Narciso | 00:57:37 | 00:57:10 | 05:27 |
| Virginia Tellaetxe Galarza | 00:57:43 | 00:57:09 | 05:27 |
| Jose Maria Dominguez Basaco | 00:57:53 | 00:57:25 | 05:28 |
| Aurelio Nuñez Redondo | 00:58:04 | 00:57:50 | 05:30 |
| Migeltxo Eceiza Urkizu | 00:58:21 | 00:57:57 | 05:31 |
| Matias Nieto Masno | 00:58:30 | 00:58:08 | 05:32 |
| Roberto Fernandez Gonzalez | 00:58:37 | 00:57:59 | 05:31 |
| Damian Barroso Fernandez | 00:58:47 | 00:58:07 | 05:32 |
| Larraitz Gil Iceta | 00:59:26 | 00:58:59 | 05:37 |
| Andrea Martin Martinez | 00:59:41 | 00:59:13 | 05:38 |
| Xabi Etxezarreta Etxeberria | 00:59:42 | 00:59:14 | 05:38 |
| Haizea Furundarena Basarte | 00:59:48 | 00:59:12 | 05:38 |
| Bet Anazar Martinez | 00:59:50 | 00:59:48 | 05:42 |
| Iñaki Azpeitia Bizuete | 01:00:13 | 00:59:47 | 05:42 |
| Lurdes Falcon Gazapo | 01:00:14 | 00:59:48 | 05:42 |
| Manolo Lopez Guitian | 01:00:16 | 00:59:59 | 05:43 |

| | Ofiziala | Erreala | Km.ko |
|---|---|---|---|
| Elena Gago Betelu | 01:00:24 | 01:00:00 | 05:43 |
| Andoni Mujika Calonge | 01:00:28 | 00:59:56 | 05:42 |
| Iñaki Arruti Landa | 01:00:36 | 01:00:16 | 05:44 |
| Juanan Centeno Lopez | 01:00:36 | 01:00:16 | 05:44 |
| Leire Belartieta Galardi | 01:00:41 | 01:00:38 | 05:46 |
| Eduardo Mena Sardon | 01:00:42 | 01:00:04 | 05:43 |
| Ohiane Lizaso Bermudez | 01:00:42 | 01:00:39 | 05:47 |
| Javi Vecilla Garcia | 01:00:42 | 01:00:04 | 05:43 |
| Maddi Iparaguirre larza | 01:00:43 | 01:00:05 | 05:43 |
| Amaia Harto Juan | 01:00:43 | 01:00:06 | 05:43 |
| Asier Lizaso Lebron | 01:00:43 | 01:00:05 | 05:43 |
| Joxean Belartieta Olano | 01:00:43 | 01:00:40 | 05:47 |
| Izar Agirretxe Iradi | 01:00:47 | 01:00:07 | 05:44 |
| Jone Leal Barandiaran | 01:01:00 | 01:00:23 | 05:45 |
| Iker Elorza Esnaola | 01:01:00 | 01:00:24 | 05:45 |
| Gorka Juarez Lekunberri | 01:01:00 | 01:00:20 | 05:45 |
| Josemi Vila Larrañaga | 01:01:01 | 01:00:20 | 05:45 |
| Txema Berasategi Intxausti | 01:01:01 | 01:00:20 | 05:45 |
| Javi Zuñiga Costa | 01:01:14 | 01:00:48 | 05:47 |
| Idoia Arizeta Jauregi | 01:01:20 | 01:00:40 | 05:47 |
| Diego Elvira Sanchez | 01:01:20 | 01:00:40 | 05:47 |
| Nagore Alkorta Zabaleta | 01:01:21 | 01:00:42 | 05:47 |
| Iñaki Zendoia Ibarbia | 01:01:29 | 01:00:57 | 05:48 |
| Oscar Gil Rubio | 01:01:31 | 01:00:51 | 05:48 |
| Roberto Santos Mendo | 01:01:32 | 01:00:52 | 05:48 |
| Cristina Pérez Laspeñas | 01:01:39 | 01:01:24 | 05:51 |
| Daniel Murillo Muñoz | 01:01:44 | 01:01:28 | 05:51 |
| Pello Eskisabel | 01:01:59 | 01:01:17 | 05:50 |
| Rafa Diez | 01:02:00 | 01:01:17 | 05:50 |
| Xanti Arrospide | 01:02:00 | 01:01:17 | 05:50 |
| Aitzol Iriondo | 01:02:00 | 01:01:17 | 05:50 |
| Ibon Fernandez Iradi | 01:02:01 | 01:01:19 | 05:50 |
| Ane Labaka Mayoz | 01:02:01 | 01:01:18 | 05:50 |
| Xabi Gallaga | 01:02:01 | 01:01:20 | 05:50 |
| Beñat Iriondo Yarza | 01:02:02 | 01:01:20 | 05:50 |
| Txema Martinez Urkiola | 01:02:21 | 01:01:53 | 05:54 |
| Asier Esnaola Barragan | 01:02:22 | 01:01:55 | 05:54 |
| Asier Eizaguirre Echeverria | 01:02:54 | 01:02:17 | 05:56 |
| Mertxe Sanchez Terraza | 01:02:57 | 01:02:30 | 05:57 |
| Maite Felipe Felipe | 01:02:57 | 01:02:30 | 05:57 |
| Rosi Martinez Patino | 01:03:02 | 01:02:47 | 05:59 |
| Goio Solano Mena | 01:03:17 | 01:03:05 | 06:00 |
| Pablo Muñoz Martin | 01:03:34 | 01:03:00 | 06:00 |
| Agustin Cumbres Benitez | 01:03:42 | 01:03:03 | 06:00 |
| Mª Jose Aparicio Gonzalez | 01:04:45 | 01:04:22 | 06:08 |
| Uxue Otxandorena Yeregi | 01:05:29 | 01:04:49 | 06:10 |
| Haizea Del Olmo Iturriza | 01:05:45 | 01:05:42 | 06:15 |
| Andres Del Olmo De Pablo | 01:05:45 | 01:05:31 | 06:14 |
| Ainhoa Iriondo Arrizabalaga | 01:05:51 | 01:05:41 | 06:15 |
| Luciana Escudero Castagnin | 01:06:37 | 01:06:06 | 06:18 |
| Itziar Etxezarreta Etxeberria | 01:09:58 | 01:09:25 | 06:37 |
| Lourdes Carrasco Luengo | 01:09:58 | 01:09:39 | 06:38 |
| Itziar Elguezabal Larrañaga | 01:10:00 | 01:09:27 | 06:37 |
| Noelia Bermejo Dominguez | 01:10:03 | 01:09:29 | 06:37 |
| Xabier Prada Fernandez | 01:13:19 | 01:12:49 | 06:56 |
| Jose Carlos Fernandez Jimenez | 01:13:19 | 01:12:49 | 06:56 |
| Jose Ignacio Mendiluce Aristondo | 01:13:20 | 01:12:50 | 06:56 |
| Jose Ignacio Gonzalez Echeverria | 01:14:35 | 01:13:58 | 07:03 |
| Txema Esnal Castresana | 01:22:57 | 01:22:09 | 07:49 |
| Enara Ieregi Uitzi | 01:22:57 | 01:22:10 | 07:50 |
| Xabier Prieto Arzallus | 01:22:58 | 01:22:11 | 07:50 |
| Juan Prieto Perez | 01:22:59 | 01:22:11 | 07:50 |
| Raquel Merino | 01:22:59 | 01:22:11 | 07:50 |
| Juan Luis Ieregi Ezeitza | 01:22:59 | 01:22:12 | 07:50 |
| Jose Antonio Martin Montes | 01:23:11 | 01:23:11 | 07:55 |






**Eneko Agirrezabal Lasarte-Oria Bai! Kroseko irabazlea**

# “Laugarren kilometrora arte sentsazio oso onak izan ditut, lasterketa ondo atera da”

***Eneko Agirrezabal izan zen aurtengo XXI. Lasarte-Oria bai! kroseko gizonekoetan garaile. Segurako gazteak, hogeita hamaika minutu pasatxo behar izan zituen ibilbidea egin eta helmuga zeharkatzeko. Bigarrena, joan den urtean garaile izan zen Ossama Ifraj izan zen. hogeita hamabi minutuko denborarekin eta hirugarren Ander Sagarzazu hogeita hamabi minutu eta bi segundorekin.***



Eneko Agirrezabal gazte segurarra izan zen igandeko kroseko txapelduna gizonezkoen sailkapenean.

Zortziehun parte hartzailetik gora izan zituen aurtengo XXI. Lasarte-Oria bai! krosak. Goizeko hamar eta erdietan eman zitzaion hasiera lasterketari, baina ordubete lehenago, korrikalariak beroketak egiten ikus zitezkeen herriko kaleetan zehar. Korrikalari guztiekin batera, bertan izan ziren gizonezkoetan lehen hiru postuetan sailkatzea lortu zuten, Eneko Agirrezabal, txapelduna, Ossama Ifraj txapeldun ordea eta Ander Sagarzazu hirugarren sailkatua. Txapeldunaren hitzak bildu ditugu, hona hemen Agirrezabalek esandakoak.

**Nola joan da lasterketa?**
Lasterketa ondo atera zait. Behobiarako pixka bat prestatzeko asmoarekin etorri naiz Lasarteko Krosera. Hasieratik, Ossama Ifraj eta Ander Sagarzazurekin batera atera gara hiruok. Hasieratik lasterketa zertxobait bijilatzen jona naiz. Ossama erritmo aldaketak eginaz joan da lasterketan zehar. Berasategi Jatetxe inguruan nik erritmoa zertxobait bizitu eta aurretik jarri banaiz ere, gehiegi izan da agian. Berriz ere lasterketaren zati horretan Ossamak aurreratu egin nau eta zertxobait sufritu dut. Biok bakarrik alde egin dugu eta hipodromo atzealde horretan, buelta eman diot eta Zubietarako bidean zehar atzean uztea lortu dut. Bukaeran tarte polita atera badiot ere, kostata lortu dut aurretik joatea.

**Zein sentsazio izan dituzu lasterketan zehar?**
Laugarren kilometrora arte sentsazio onak izan ditut. Baina gero, ez dakit zer arrazoigatik, erritmoarekin pixka bat pasa naizelako agian, arnasa bete zait eta nahikoa sufritu dut. Erritmoa jaitsi eta buelta ematea lortuta, gustura aritu naiz.

**Hoki Guerrero Lasarte-Oria Bai! Kroseko lehenengo emakumea**

# “Niretzat garaipen hau oso garrantzitsua da”

***Hoki Guerrero korrikalaria izan zen emakumezkoen sailkapenean garaile. Berrogeita bi minutu eta bost segundoko denborarekin iritsi zen helmugara hernaniarra. Bere atzetik, Rosa Uribe usurbildarra eta Rebeca Villanueva lasarteoriatarra izan ziren helmugara iristen azkarrenak; txapeldun ordeak, berrogeita bi minutu eta hamabost segundu eta hirugarrenak berrogeita bi minutu eta hogeita zortzi segunduko denborekin.***



Hoki Guerrerok lortu zuen emakumezkoen artean denborarik onena.

Hernaniar korrikalaria izan zen XXI. Lasarte-Oria bai! kroseko emakume azkarrena. Hoki Guerrerok lortu zuen igande goizeko lasterketan lehen postua. Berari jarraiki, hamar segundoko aldearekin, Rosa Uribe Usurbildarra izan zen txapeldun ordea eta hogeita hiru segundoko tartearekin Rebeca Villanueva heldu da hirugarren. Emakumezko txapeldunaren hitzak ere bildu ditugu, hona hemen esandakoak.

**Nolako giroa izan da korrika egiteko?**
Gaurko lasterketako giroa egia esan paregabea zen korri egiteko, eguraldia fresko eta haizerik ez.

**Nola bizi duzu lasterketa, nola sentitu zara?**
Neretzat lortutako garaipen hau oso garrantzitsua da, izan ere, ama Lasarte-Oriako da, aitona-amonak eta familia bertakoa beraz, oso pozik gaurko garaipenarekin. Nere helburua lasterketa honetan ez zen marka jakin bat lortzea. Hasieratik beste hiru neska korrikalarirekin batera aurrean ikusi naiz eta bertan mantendu naiz gehiegi desgastatu gabe, bukaera arte, irabazi arte. Lasterketa honetan kontuz ibili behar da baditurlako gora-beherak. Fuerte atera naiz, mantentzen, nere burua gehiegi behartu gabe, izan ere, Mitxelingo azken lasterketa zatiak, kilometro bat du eta neretzako oso gogorra da azken zati hori. Lehen momentutik joan naiz poliki, indarrak ondo gordeaz, aurkariak ondoan neuzkala azkarregi joan gabe eta lasterketan zehar oso ondo sentitu naiz.





Ohorezko aurreskuaren ostean, 25 patinatzaileak izan ziren atera ziren lehen parte-hartzaileak.


Martin Berasategiko aldapatik aurrera libre aritu ziren.

# Patinatzaileentzat lehenengoa

## 25 izan dira kroseko ibilbidea frogatzen

***Aurtengo edizioan berrikuntza izan da patinatzaileen parte hartzea. Ibilbidearen zailtasunak jakinda, antolakuntzak esperientziadun patinatzaileen parte hartzea bilatu zuen. Horrela izanda, 25 patinatzaile aritu ziren herriko kaleetan barrena. Gune aldapatsuenetan ikusleak harrituta utzi zituzten euren oreka erakutsiz.***

Patinatzaileak izan dira aurtengo berrikuntza nagusia Lasarte-Oria Bai! Kroseko XXI. edizioan. Patinatzaileek ibilbidea osatzen lehenak izan ziren. Ohorezko aurreskuaren ostean haiek irten ziren korrikalarien aurretik. Abiadura bizian hasi zuten ibilbidea eta horrela ere ikusi ahal izan ziren batzuk ibilbideko zati zailenetan ere.

Antolakuntzak bazekien erronka handia zela herriko kroseko ibilbidea patinatzaileetzat irekitzea. Izan ere, hainbat dira aldapak eta erorketa arriskua ikusten zen hauetan, horietako bat Martin Berasategikoa. Horraino neutralizatuak joan ziren guztiak.

25 patinatzaileak esperientzia bazuten eta euren trebetasuna erakutsi zuten ibilbide osoan zehar. “Espreski gonbidatu dira esperientziadunak eurek esan dezaten datoren urtean hala mantendu edota patinatzaile afizionatu gehiago parte hartzeko, ibilbidea moldatu beharko den. Batek erorikoa izan du, kurba batean baina garrantzia gutxikoa izan da. 20 minutu inguruan egin dute”.

Orokorrean ibilbide polita dela aipatu zuten parte hartzaileek, hainbat zailtasun badituela aitortu bazuten ere.

Antolakuntzaren eskuetan dago datorren urtean izen ematea zabaltzea edo ez. Ibilbidea moldatu behar den ala ez ere baloratu beharko dute.






Ibilbidearen zati lauean abiadura handia hartu zuten ere patinatzaileek.


Aldapa jaisten ederki moldatu ziren denak.






Gogotsu ekin zieten bigarren itzuliari.




Txikienek lotsati hasi zituzten lasterketak.



Azken metroetan aurreratu zen Roke Etxezarreta.



Irteeran azalpenak adi-adi entzuten.

# 1.010 lasterkari txiki

## Herriko gaztetxoek primeran pasa zuten Korrika Festan, beste urte batez

**Korrikaren festa handia iritsi zen helduen krosaren ostean. Herriko haur zein gaztetxoek korrikaldi ederrak osatu zituzten. Guztira 25 taldetan banatuta egin zuten lasterka 1.010 parte hartzailek. Aurtengo berrikuntza bezala, esan infantil eta kadete mailako neska-mutilak izan zirela korrika egiten lehenak eta ondoren, 2011n jaiotakoetatik 2005era artekoen txanda izan zela. Primeran pasa zuten guztiek.**

Korrikaren festa deitzen dio Ostadarren haur zein gaztetxoen lasterketari eta zalantzarik gabe atzokoan ere festa handi bat izan zen. Guztira 1.010 haur eta gazte elkartu ziren kros nagusiaren ostean korrika egiteko.

Lehenengoz, antolakuntzak horrela erabakita, zaharrenek hasi zuten txanda. Infantil eta kadete mailako lasterketetan korrikaldi ederrak ikusi ahal izan ziren helmugaratzen lehena izateko grina erakutsiz.

Jarraian, txikiagoek hartu zuten lekukoa. Ohi bezala Ostadarreko laguntzaileak izan zituzten lagun. Ibilbideari hainbat buelta eman behar izan zizkietenak, lehenengo itzulia neurtua egiten zuten Ostadarreko laguntzaileek gidatuta. Ostean, modu librean egin zuten lasterka.

Lasterketei dagokionez, asko ziren lehenak iristeko gogotsu aritu zirenak beste batzuk ordea, ondo pasatzeko helburu bakarrerakin irtenda, lagunekin eskutik hartuta edota koadrillan egin zuten korrika. Azkenekoek ere animo gehien eskuratu zutenak izan ziren, izan ere, etengabekoak izan ziren txalo zaparradak ikusleen aldetik.

### Argazki onenak

Bestalde, ezin ahaztu bide bazterretan aritu direnekin. Izan ere, marea laranjak kalea hartu bezain laster guraso, lagun eta herritarren animoak ozen entzun ziren.

Guraso askok ere argazkiak atera nahi izan zituzten eta ibilbidearen bi alboetan kokatu ziren mugikor eta kamara eskutan argazki onenak ateratzeko prest. Korrikalarien artean posatzeko jarri zirenak ere asko.

Beste urte batez kirol zaletasuna sustatzeko ekimena arrakastatsua suertatu zen. Parte hartzaile guztiek euren domina golkoan harro erakutsi ahal izan zituzten amaieran eta hamaiketako goxoa ere egin zuten.






Abiadura bizian iristen ziren helmugara, lehenengoak izateko irrikitan.



Beroketak eta luzaketak egin zituen baten batek irten aurretik.




Korrika baina alboetara begiratuz gurasoak aurkitzen zituzten.








25 taldetan banatu zituen Ostadarrek korrikalariak, adinka.



Lagunekin pikeak ere ikusi ziren helduen krosean bezala.



# Herriko kroseko irudi bereziak




Euskal presoen etxeratzea eskatuz aldarria egin zuten zenbait korrikalarik.




Orio Arraun Elkarteko kamisetak soinean zituztela atera ziren korrikalari batzuk XX1. Lasarte-Oria bai! krosean.






Ttakuneko lankide Arkaitz Urdapilletak, Iñigo Gonzalezek eta Jon Pello Artetxek igandeko krosean parte hartu zuten.



Erraustegiaren aurkako aldarrikapenik ere ez zen falta izan.






Urtero moduan, hainbat herritar lasterketaren amaieran joan ziren kroseko korrikalari guztien atzetik. Izan zen oin hutsik korri egitera animatu zenik ere.

Argazki eta bideo guztiak *txintxarri.eus* webgunean eta facebook orrialdean



# Agenda

Ostirala, 19:30ean, Ama Brigitarren Komentuan



## Hariak kantuan

Danok Kideren Musika Topaketei hasiera emateko Sotto Voce laukotearen 'Hari Kantariak' emanaldiaz gozatu ahalko da. Taldean Tomas Ruti herritarrak biola jotzen du. Programa anitza proposatzen du taldeak ahotsarako egindako obretan oinarritua. Musika estilo eta garai desberdin arteko bidaia da. Sehaska-kanta batetik erromantiko opera-aria batera, Ave Mariatik bolerora. Napolitanak eta tangoak ere izango dira... Doako sarrera.

## Topaketa Astea

*Manuel Lekuona Kultur Etxea*
**Asteazkena 9, 19:00etan**
'Migrantes y refugiados. Iconos que nos interpelan' hitzaldia eskainiko du Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendariak.

*Okendo plaza*
**Osteguna 10, 18:30ean**
Donostiako 'Circulo del Silencio' taldeko kideen ekintza ixila.

*Manuel Lekuona Kultur Etxea*
**Ostirala 11, 19:00etan**
Amparo Climenten 'Las lágrimas de África' filma ikusgai izango da.



*Antonio Mercero aretoa*
**Azaroaren 2tik 15era, astelehenetik ostiralera, 18:00etaik 19:00etara**
'Somos inmigrantes' argazki erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

## Salatzen dut

*Manuel Lekuona Kultur Etxea*
**Asteazkena, 19:00etan**
Ibon Fernandez Iradi presoaren egoeraren inguruko mahai-ingurua. Hizlariak Maritxu Paulus Ibonen abokatua, Ane Fernandez Ibonen arreba eta Itziar Arteaga sarekidea. Sarek antolatutako ekintza.

*Okendo plaza*
**Ostirala 11, 20:00etan**
Ibon Fernandez Iradiren egoera salatzeko ekitaldi kulturala izango da. Musika, dantza, antzerkia edo bertsolariak izango dira. Sarek antolatutako ekintza.

## Zinea

*Manuel Lekuona Kultur Etxea*
**Igandea 6, 17:00etan**
'Mascotas' animaziozko filma haurren zinea saioan. Sarrera 3,80 euro.

**Igandea 6, 19:30ean**
'Inferno' filma helduen zinema saioan. Sarrera, 5,50 euro.

**Ostirala 11, 22:00etan**
'Elle' filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen zine forum saioan. Ostean, solasaldia izango da. Jatorrizko bertsioan eskainiko da azpitituluekin. Sarrera 5,50 euro.



## Ipuin-Kontalaria

*Haur liburutegia*
**Osteguna 10, 18:00etan**
KontuKantoiko kideek ipuinaren ordua eskainiko dute. Saioa 6 eta 8 urteko haurrei zuzendua dago.

# Herritarren txokoa

**1955eko kintoen afaria**
1955ean jaiotakoek kinto afaria ospatuko dute azaroaren 19an, 21:00etan, Goiegi jatetxean. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko deitu: 678 90 34 99 (Bego) eta 627 70 12 41 (Asun)

**1963. urtean jaiotakoen afaria**
Aurten ere 1963. urtean jaiotakoek kinto afaria egingo dute. Honako honetan, 'El Jardin' jatetxean, lehen 'Txitxardin Beltza' zen jatetxean antolatu dute, azaroaren 19an, 21:00etan.

40 euro izango da afaria, DJ eta guzti. Laboral Kutxako zenbaki honetan egin behar da diru sarrera, ES 36 3035 0036110361136871.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**
Geltoki kalea, 4 943 366858
*txintxarri@txintxarri.eus*

## Eskutitza

### Ibon Fernandez Iradiren egoera

Gaixotzen ez denik, apenas dagoen gure artean. Gaixoaldiek ez dute adin ez urtaro jakinik lehenesten. Hala denean, osasun etxera edo konfiantzazko osagilearengana jotzen dugu, hark artatu eta dagokigun tratamenduan jar gaitzan. Guztion onarpena duen eskubidea da hau.

Espetxean ordea, zaila da oso bidezkoa den eskubidea gauzatzea. Bertan egon direnak, daudenak entzutea baino ez dago! Horren erakusle da: urteak aurrera joan ahala gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten preso gehiago dagoela ikustea. Egoera larrian dauden hamar presoen artean dago Ibon Fernandez Iradi.

Sendaezina eta larria da duen gaitza: esklerosi anizkoitza. Urteak dira lehen sintomak agertu zirenetik, urteak diagnostikoa eskuratu zuenetik eta hiru urte beteko dira zigorraren suspentsio eskaera epailearen mahaian jarri zenetik. Bere kasua berriro aztertuko da Parisen egingo duten auzialdian, azaroaren 24an.

Horren aurrean, Larriki Eri diren Presoak Askatu aldarria izango du azaroaren 19an Baionako Euskaldunen plazatik arratsaldeko 17:00etan manifestazioa aterako da. BAGOAZ elkarteak deitu eta SAREk bere egiten duen deialdia da. Herritarrak parte hartzera gonbidatu nahi ditugu, baita herrian egingo ditugun ekimenetan ere: mahai ingurua azaroak 2an kultur etxean 19:00tan. Eta kultur ekimena azaroaren 11, Okendon 20:00tan.

Euskal jendarteak asko daukagu esateko, egiteko. Benetako bake eta bizikidetza eskenatoki baterantz urratsak ematea aldarrikatu dezakegu, gure alea jar dezakegu.

**Joxe Mari Agirretxe eta Itziar Arteaga**
**Lasarte-Oriako SARE**

**Diruz laguntzen duten erakundeak**

**Babeslea**
LASARTE-ORIA UDALA

**Laguntzailea**
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Argitaratzailea:**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
**943 366 858/943 371 448**
G-20407557
**Legezko gordailua:**
SS513/93
ISSN: 1134-0053
**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri
**Erredakzioa:**
Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega
**txintxarri@txintxarri.eus**
**Publizitatea:** Arantxi Zulaika
**publizitatea@ttakun.eus**
**Laguntzaileak:**
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
**Informatikoa:**
Xabier Amadoz

# ZABALETA BERRI BIZIGUNEA




14 ETXEBIZITZA BERRI ZABALETA BERRIN

2 LOGELA +12m²ko terraza
184.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

URBIL MERKATAL GUNEA · ANBULATEGIA · BIDE GORRIA · HAURREN PARKEA · KIROLDEGIA · SANTA BARBARA

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN, 100m²raino
BISTARIK ONENAK SANTA BARBARA ALDERA
ERABATEKO PERTSONALIZAZIOA

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan

residencial zabaleta berri bizigunea


